



| | |
|---|--------------------|
| LAN TALDEAREN BILERA | |
| DATA: 2025.02.03 | BILERA ZENBAKIA: 2 |
| ORDUA ETA LEKUA: 17:30tan Itsasondoko Udalean | |
| PARTEHARTZAILEAK: Bihotza (gizarte langilea), Elena (Udal zinegotzia), Amparo, Maider | |

EGINDAKO LANAREN LABURPENA

LANDUTAKO GAI ORDENA

1. ETXEBIZITZA
2. JUBILATUAK
3. KULTURARTEKOTASUNA
4. AURREKONTUAK
5. PARTAIDETZA DIRULAGUNTZAK
6. BESTELAKOAK

1. ETXEBIZITZA

GESLAN diagnosiaren aurkezpena, zalantzak argitu eta aurrera begira eskuhartzeko proposamenak. Otsailaren 13an, osteguna, udaletxean. Etxebizitza, ongizateko bileran, martxoan lantzeko gaia izango da.

2. JUBILATUAK

Bizi Bixik ez zuen arrakastarik izan. Horrez gain, ez dute aurrera eramango aurreikusitako martxa eta hurrengo ekintza bertan behera geratu zen. Datozen deialdiak ez dira herri txikietara zuzenduta egongo, Gipuzkoa mailan izango dira.

Bada dokumentu bat beste herri batzuetan oinarri gisa edo abiapuntutzat erabili dutera, herriko jubilatuen elkartearen eraldatze prozesua. Bihotzaren proposamena, aurrerago agian, dokumentu hori erabiltzea lanketa egiteko.

3. KULTURARTEKOTASUNA

Berdinbidean lehenengo saioa oso positiboa izan da. 7 emakumez osatutako taldea sortu da aurreneko txanda honetan eta bigarrera ez mistoa egitea erabaki dute. Aurrera topagune bihurtzeko gogoia adierazi dute. Bigarren saioa otsailaren 12an izango da, 16:30-18:30 kulturgunean.



Proposamena: Nere kontratatu Maider Avaristorekin batera Plana diseitzatzeko, dirulaguntzak kudeatzeko,...

4. AURREKONTUAK

Ulertu dugunez, Maitek (udaleko langileak) aurrekontuak itxita utzi zituen azaroan, lanpostua utzi aurretik, aukera eman gabe batzordeei aurrekontu berriak landu eta aurkezteko. Ongizate batzordeak abenduan zehar aurrekontu proposamena aurkeztu zuen eta ez da kontutan hartu. Bihotzak lortutako kontuak eta batzordeak aurkeztutakoak ez datoz bat.

5. PARTAIDETZA DIRULAGUNTZAK

Etxebizitzaren gaiaren inguruan informazio nahikoa dugula adierazi eta dirulaguntzak kulturartekotasunera bideratzea adostu dugu. Martxoaren 6ra arte dugu proiektuak aurkezteko (Maider A. + Nere)

6. BESTELAKOAK

Ongizatearekin zerikusia duen beste ekintzaren bat antolatzeko ideia ezberdinak landu ditugu eta, momentuz, **menopausiaren** gaiari heltzea erabaki dugu. Menopausiaren eguna urriaren 18a dela aprobetxatuz, astean zehar (13tik 19ra) ekintza ezberdinak burutzea adostu dugu.

| - ETXEKO- LANAK / ARDURAK | NOIZKO? | ZEINEK? |
|---|---------|----------------|
| -Lokalen proiekturako talde motorra nortzuk osatuko duten erabaki | otsaila | Jabi-Maider |
| -Berdinbidean bigarren saioa prestatu eta argazkiak | otsaila | Jone-Maider |
| -Aktak nola `igotzen` diren irakatsi-ikasi | otsaila | Bihotza-Maider |

HURRENGO BILERA

Martxoaren 10a, 17:30 udaletxean